

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Amurrioko SAPUR 9 sektoreko RB1 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari. Espedientea 201804S455**

2019ko irailaren 26ko Amurrioko Osoko Bilkurak behin-betiko onespena eman zion Isabel Mendivil Goicuria andereak, Alejandro Leva Fuentes jaunak eta Iñigo Minguez Ojembarrena jaunak sustatutako Amurrioko SAPUR 9 sektoreko RB1 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari.

Guztiak jakin dezaten jakinarazten da, ohartemanda ebazpen horrek administrazio bidea agortzen duela eta horren aurka ondoren aipatzen diren errekurtsioak aurkez ditzakezula:

Administrazioarekiko auzi errekurtsioa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian (Gasteiz hiribidea 18 –Justizia Jauregia ), bi hilabeteko epearen barruan iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa (borondatezkoa erabat) aurkeztu ahal izango diozu ebazpena eman duen organoari. Horretarako hilabete izango duzu iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertze errekurtsioa aurkeztu zenetik hilabete (1) igaro eta ebazpenik jaso ez bada, errekurtsioari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du. Ustezko ezezko horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da. Horretarako, sei (6) hilabete izango dira, errekurtsioari ezezkoa eman zaiola ulertu ondorengo egunetik aurrera.

Hala ere, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkeztu edo egintza gauzatu ahal izango duzu.

Amurrio, 2019ko irailaren 27a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**